

# W. von Humboldt eta garaiko Euskal Literaturaz

(W. von Humboldt and the Basque literature of the epoch)

Urkizu, Patri  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48  
20007 Donostia

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 597-606]

---

*W. von Humboldten hizkuntza lanak dira bere azterketen artean ezagunenak, baina literaturari dagozkionak eta bereziki euskal literaturazkoak oso gutxi: beraz, hauek eta batipat bere Euskal Herriako bidaietan ezagutu eta ikertu herri literaturari buruzkoak azpimarratzen saiatu gara artikulu honetan.*

*Giltz-Hitzak: Herri literatura. Bidaiak.*

*Entre los estudios realizados por W. von Humboldt son los lingüísticos los más conocidos, siendo los referentes a la literatura y en especial a la literatura vasca poco mencionados. Por ello, hemos intentado subrayar el interés de éstos, sobre todo en lo que concierne a la literatura popular vasca que conoció en sus viajes al País Vasco.*

*Palabras Clave: Literatura popular. Viajes.*

*Les études linguistiques de W. von Humboldt sont mieux connues que celles concernant la littérature et surtout la littérature basque. Ainsi, nous avons voulu souligner l'intérêt de ses travaux sur la littérature populaire qu'il a connue lors de ses voyages au Pays Basque.*

*Mots Clés: Littérature populaire. Voyages.*

Lehen-lehenik mila esker EUSKO IKASKUNTZAri eta ikastaro hau Gilen Humboldt ez eta Euskal Herriaz antolatatu dutenei luzatu didaten gonbiteagatik garaiko euskal literaturaz, edota zehatzago esatearren Humboldt eta euskal literaturaz mintza nadin.

Koldo Mitxelenak zioen bezala<sup>1</sup>, Humboldt euskaldunentzat garaian gailurra ukitu zuen bertako tradizio linguistikoa eta mendebaldekoaren arteko lehen harreman zuzena suposatzen du. Eta bigarrena Hugo Schuchardt omen. Ene uste apalez, izan ziren ere lehenago beste aitzindari eta pioneroak, baina utz ditzagun xehetasun horiek eta demagun hala dela. Baina nola sortu zitzaion Postdam-darrari gureganako jaidura?

Oker ez banabil bi gizon ospetsuen liburuak izan zituen zirikatzaile. Bata Miguel Batllori jesuita katalandarrak adierazten digunez<sup>2</sup> Lorenzo Hervás y Panduroren, *Catalogo delle lingue conosciute et notizia delle loro affinità e diversità* (Cesena, 1784), eta bestea Justo Garatek gogoratzen digun bezala Julio Caro Barojaren hitzak aipatzean<sup>3</sup>, Rigan 1784-1791ko epean Herder-ek argitaratua, eta Edgar Quinet-ek frantsesera honela itzulia, *Idée sur la philosophie de l'histoire de l'humanité*. Hona Caroren hitzok, eta bihoaz oroitze omenalditxo gisara, *Algunos mitos españoles*, izeneko liburutik hartuak direlarik:

Al hablar el filólogo alemán Herder de los vascos, con verdadera simpatía, en sus *Ideas sobre la filosofía de la historia de la humanidad*, publicadas en 1784, se lamenta de que no estuviera recogida la poesía de este pueblo, que él suponía debía de ser tan interesante o más que la escocesa dada a luz por Macpherson, que entonces estaba maravillando al mundo, y dice: "Esperamos que pronto la lengua, las costumbres y la historia de un pueblo tan interesante y activo nos serán más conocidas; y lo que ha hecho un Macpherson por los gaélicos, un segundo Larramendi, sin duda, lo hará por los vascos, uniendo los restos de su genio nacional. Probablemente entre ellos se ha conservado la tradición de aquella batalla de Roncesvalles, que ilustrada por la epopeya monacal del arzobispo Turpin, ha dado nacimiento en la Edad Media a tantas novelas y poemas; por lo menos su país, como las murallas de Troya, ha llenado durante mucho tiempo la imaginación de los pueblos, con un cúmulo de aventuras que se creían verdaderas".

Idea hauek bultzaturik etorri bazen Euskal Herrira laister, ordea, errealidadearen eta testu uztaren ezereza eta agorra ikusirik ia etsi beharrean aurkitu zen beraxek aitortzen digunez Adelung-en *Mithridates*-i ezarri zizkion zuzenketa eta eransketetan:

Uno de los principales objetos que yo me propuse en mi viaje á Vasconia fué el buscar los vestigios que pudiesen aun haber quedado de la más remota historia y del estado más antiguo del pueblo bien por medio de viejas tradiciones ó de antiguos cantos nacionales: no obstante me encontré bien pronto desesperanzado de encontrar algún objeto importante. Puede ser que en ningún otro país, el celo mal entendido de los primeros habitantes cristianos haya llegado á conseguir la destrucción de todos los restos del antiguo paganismo como en éste. No se puede adquirir, ni de la constitución, ni de la religión, ni de las costumbres de los antiguos vascos una idea por poco satisfactoria que sea y apenas algunos vestigios mezquinos de este remoto tiempo se han conservado en la lengua, los nombres indígenas de los meses y días de la semana, algunos nombres propios en corto número (pues que el mayor ha sido sustituido con el de los nombres de los Santos) danzas y cuentos nacionales & Yo no he encontrado de los antiguos aires nacionales

1. Luis Michelena, "Guillaume de Humboldt et la langue basque", *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid, 1985, 126-143.

2. Miguel Batllori, "El archivo lingüístico de Hervás en Roma y su reflejo en W.von Humboldt", *Archivum Historicum Societatis Iesu*, 1951, 20, 59-116; - *La cultura hispano-italiana de los jesuitas expulsos: españoles, hispanoamericanos, filipinos, 1767-1814*. Gredos, Madrid, 1966.

3. Guillermo de Humboldt, *Cuatro ensayos sobre España y América*. Versiones y estudios por Miguel de Unamuno y Justo Garate. 2ª ed. Austral, Buenos Aires, 1951, 52.

absolutamente más que el siguiente, que es un fragmento muy defectuoso, cuya antigüedad puede parecer dudosa por más de un motivo<sup>4</sup>.

Leloren kanta honetaz aurrerago mintzatuko baikara, egin ditzagun bi bidaiak famatu horiek Humboldtekin batera Euskal Herrian barrena eta azter ditzagun banan-bana gure literaturaz ematen dizkigun oharrak.

Euskarak gauzak labur esateko duen dohaina agertzeko erretrauak aipatuko dizkigu lehen bidaiako bozetoetan, eta hala, nondik hartu duen esan gabe, Arnaud Oihenarten 1657ko atso-titz bildumatik hartuko du, 273.a hain zuzen: *Idiak erasi beharrean, gurdia*. Eta hauxe bera Azkuek 498.aren azpian aurki daitezkeen aldaera ezberdinotan ematen digu. Bat Lope Isastikoak bildua, *Idiak erausi bearrean, gurdia iño*, eta bestea Uriartek, *Idiak oñon-bearrean burdiak oñoten*, adierazten digutenak, noski, erretrauen bizi luzea eta egunerokotasuna.

Bildu zituen Humboldték Harambillet Itsasukoaren ahotik beste bost erretrau, berriki Aita Donostiaren kantutegian berrargitaratuak. Hona hemen:

- a) *Ama, zer da ezkontzea? Alaba, da irutea, erditzea eta nigar egitea.* (Azkue, 1250)
- b) *Fraide ilkirik apeztuari ez zure komaia fida.* (Azkue, 176)
- c) *Igandetik aste lehenera bada gaua.* (Azkue, 1716)
- d) *Oraingo nerhabeak zaharrak baino gaixtoago dire.* (Azkue, 1793)
- e) *Semea ase eta zirtzil, alaba gose eta berregin.* (Azkue, 1466)<sup>5</sup>

Eta jakina da erretrauen edo atsoitzen erabilera oso arrunta izan dela betidanik, bai herri xehearen ahotan, bai eta Jakintsuenetan eta batik-bat hauek ez zutela inongo kupidarik sentitzen Errenazimendu garaian, eta 1500az geroztik Erasmok Parisen *Adagiorum Collectanea* deituan 800 bildu zituenez geroztik eta moldiztegitatu, bildu zituztenak liburuetan emateko eta komentatzeko, zeren horimendurako baliagarri izateaz gain, bizitzarako ere irakaspen ezberdinak eman zitzaizkela.

Baina goazen aitzina eta hona zer dioten Arrasatetik Gasteizera dihoala lehen bidaiari:

Cabalgué de nuevo; es la manera más cómoda de viajar para una persona sola. En este camino tuve de postillón a un joven. Iba sin cuidado sobre el caballo y cantaba canciones vascas y castellanas.

Eta hemen bukatzen dira lehen bidako erreferentzi guztiak. Ez dakigu ezer mandozain haren euskal kantez, ezta gaztelaniazkoetz, baina zuzia piztu eta argi dezagun zoko ilun hori, euskal kanten aipamenak beste hiru leku ezberdinetan aurkituko baititugu.

Bat, bigarren bidaiari<sup>6</sup>; bi, Mithridates-en zuzenketa eta eransketetan (C); eta hiru, berekin eraman zituen paperetan eta orain plazaratu direnak Aita Donostiaren kantutegiaren VIII. tomoan (PH).

4. Guillermo de Humboldt, *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la Lengua Cantábrica o Vasca*. (Traducción del Dr. Justo Garate) con una introducción por Julio de Urquijo. San Sebastián, 1933, 76 (Aurrerantzean C).

5." Papeles de Humboldt ", *Cancionero vasco. P. Donostia*. Ed. Jorge Riezu, Eusko Ikaskuntza, Volumen VIII, Donostia, 1994, 1527-1595. (Aurrerantzean PH)

6. Wilhelm Freicher von Humboldt, *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Trad. Telesforo Aranzadi, Auñamendi, Donostia, 1975. (Aurrerantzean BB)

Pilota jokoaz mintzo zaigula bigarren bidaian honakoa diosku:

1) En tales retos no enmudece luego la musa patria. Aparecen poetas en el idioma nacional, se burlan del contrario vencido, o le inculpan ya de antemano la osadía de atreverse con tan experimentado competidor. Una canción tal, con que topé una vez por casualidad, en ocasión de un reto entre Marquina y Motrico, empieza p. el. con la siguiente estrofa:

*Habéis retado – y a qué? oh, qué presunción – al noble partido de pelota – a toda Marquina aquí – De estos retos la altivez – ah! motrikoarras, mostrádmela – ¿No os derrotó siempre Marquina? (BB, 69-70)*

Humboldték alemanez eman arren, Garatek lehen bertsoa euskaraz jasotzen digu Pablo Astarloa eta Juan Antonio Mogelen garaiaz idatzitako liburuan, Xabier Altzibarrek<sup>7</sup> oroitarazten digun legez. Hona hemen:

Aupadatu zenduban,  
Au zorakerija!  
Zertara ta pelotan  
Markina gustija.  
Aupada ero oneek,  
Motriko, esazu,  
Eztitu, nola, beti  
Markinak auspazu?

Eta aurrerago zarauztar eta getariarren arteko eztabaidak direla eta honakoa esaten digu:

2) De la misma viva rivalidad, que despierta en cuanto un pueblo intenta adjudicarse una preferencia sobre otro, nos trajo la casualidad un ejemplo, no sin interés, en nuestro camino de Zumaya a Deba. Nos encontramos con dos mujeres, una de más edad y otra más joven, su sobrina, que iban a la aldea vecina. La tía había hecho la promesa de visitar a la Virgen de Itziar, y la sobrina, una muchacha vivaracha, joven y muy bonita, le acompañaba. A nuestro ruego de que nos cantase y explicase algunos *Zortzicos* –así se llaman, de *zortzi*, ocho, las canciones nacionales vascas de ocho versos–, lo hizo así. Copié uno, lo buenamente que la pude seguir, y aunque al principio se había negado a cantar, me introdujo todavía, cuando me cansaron las muchas estrofas, la última, como especialmente bonita. La poesía de la canción no significaba mucho, como es fácil de pensar, pero el contenido nos divirtió mucho. Zarauz y Guetaria nos refirió se disputan el honor de haber sido la patria de Elcano. En Zarauz parece que hay todavía personas con este apellido y en Guetaria no. Sobre este débil fundamento había compuesto esta canción un simple marinero de Zarauz, el cual, como dijo ella, no sabía escribir ni tampoco sabía castellano, salvando el honor del pueblo nativo, a la vez que criticaba no poco al pobre indiano de Guetaria. (BB, 72-73).

PH-en aurkitu dira, hain zuzen, zeintzuk ziren Zarauzko marinelak Getariako indianoaren irrigarri paratutako bertsoak. Hona hemen:

1. Bertso bi paratzia  
darokat buruan,  
dibertitzeko zerbait  
biar degu neguan  
dibertzuko bezala  
gabiltza lanian  
Cano Getariarra  
etorri danian.

---

7. Xabier Altzibar, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarlaotarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1992, 230.

2. Aitzen zat ori zela  
xit gizon guapua  
oiec dihuenez,  
Getariakoa.  
Arrizko figura  
oile oitu naute  
oi dira nekez da  
errukitzen munduari  
gire hira kausa.  
...

13. Kuartuak atera ditu  
Indiano berriak  
Zarauztik karriatzen  
pilariko arriak.  
Eztet ikusi, baina  
dedanez arritu  
erasaro diruak  
enpleatu ditu. (sic) [1563. or.]

Beraz, pilota partidu bat eta estatua bat edo *arrizko figura* bat gai nahikoak dira bertso-larien buru-errotak eta ziri-gogoak martxan ezarri, eta haiek ondutako bertsoak gero herriaren oroitzapenean gelditu daitezten.

XVIII. mendean famatuak ziren pilotari bezala Jean Inda "Joanes Perkain" (1767-1834) aldudestarra, Pedro Azantza eta Kurutxe Ezkerra. Hauen gainean Etchegaray aphezak sortu zituen hamar bertso zeinetarik hirugarrenak honelaxe dioen:

Azantzako semea nik ez dut mendratzen,  
Bere parerik ez du pilota botatzen;

Bai, bainan Perkain hori ez zuen latsatzen  
Plaza guziarentzat bera aski baitzen<sup>8</sup>.

Hain izan zen handia gainera Perkainen ospea, non Tolosan 1931. urtean Jean Poueigh-en opera *Perkain le basque* deitua antzokiratua izan zen, Jean Pierre Harisperen *PERKAIN. Drame sous La Terre et dans le Pays Basque, (1903)* izeneko drama historikoan oinarrituz.

Bestetik, herrien arteko eztabaida bertsoak aski ezagunak ditugu ere, hala nola 1767. urtean egin zirenak Haltsu Jatsuz trufatzen zela eta, honela titulatzaren direnak: *Coplac Haltsu eta Jatsurenen airean*<sup>9</sup>.

C-n aurkezten dizkigu ere Humboldttek beste bi kanta. Lehena seaska kanta bat da eta honela dio:

3) La estrofa ó siguiente pasaje de una canción propia para adormecer á un niño, que expresa al mismo tiempo la energía de este modo de expresión, constituye un bello ejemplo: una nodriza dice á su niño:

8. Patri Urkizu, *Lapurdí, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak. II. 1545-1900*. Etor, Donostia, 1991, 171-172.

9. Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durango, 1987, 118-120.

*Uauachuba lo lo lo*  
niñito, dormir, dormir, dormir;  
*Ceuc orain, eta neuc guero,*  
tú ahora, y yo después;  
*Ceuc gura dozun egunen baten*  
tu querer lo haces-tu (part.) día de un  
*Bijoc eguingo dogu lo.*  
los dos haremos lo nosotros dormir (C, 60)

Kanta honen aldaera bi topatu ditut. Bata Aita Donostiaren kantutegian larogeibat seas-ka kanta tartean Eibarren bildua eta XIX. mendeko lehen partean kantatzen omen zena, eta bestea Azkuerenean, Izpazterren bildua. Bion aldaerak ezarriko ditut ondoren berezitasunak ikustearren:

|   |  |
|---|--|
| <i>Lobatxua, lo ta lo,</i>                    | <i>Uauatxoa lo ta lo,</i>                      |
| <i>Orain zeuk eta neuk gero,</i>              | <i>Zuk orain eta nik gero,</i>                 |
| <i>Zeuk gure dozun ordu on baten</i>          | <i>Biok batera lo egiteko</i>                  |
| <i>Biok egingo degu lo. (Donosti, nº 730)</i> | <i>Eguna lar bero dago lo. (Azkue, nº 184)</i> |

*Uauachuba*, noski, lobatxoa edo ilobatxoa esan nahi du, eta kantaria amona, amama edo amaxi litzateke. Bietatik gertuena Eibarkoa dirudi, baina honen transkribitzaileak *degu* dio *dogu*-ren ordeaz, zehatzagoa iruditzen zaidalarik bigarren era hau. Kanta honetan du ere bere etorkia munduan zehar gehien ezagutzen den euskal liburuak, alegia, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*.

Ez dut uste zehatza denik ere Riezuk dioena Humboldt-en paperak aurkeztean *De La Música del País Vascongado*, esaten baitu Moguelena dela Garateren ustez. Baina, honek argi eta garbi adierazten zuen, berehala nik somatu nuena, alegia, Academia de la Historia-ren liburutegitik desagertu zen titulu bereko testua (MS, Vol 49, 9 / 4222) eta Conok (?) izeneko batek idatzitako eskuzkribu bera zitekeela. Hona dioena Garatek:

Procedente de la colección de manuscritos de Humboldt, en que hallé varios documentos musicales, hizo llegar a sus manos fotocopias de todos ellos mi buen amigo Alvaro Arciniega, quien los va a publicar pronto, entre ellos uno de Conok que tenía otro análogo en la Academia de la Historia de Madrid, el cual desapareció antes de 1830<sup>10</sup>.

Noski, bigarren kopiarik ez dugu ezagutzen eta Arciniegak ere, nik dakidala ez zuen argitara eman. Conok-en testua musikaz eta kantez mintzo zaigu baina ez digu adibiderik ematen, soilik txilibituaz jotzeko bederatzizko zortziko eta ondoren hiru kanta, bi gaztelaniaz eta bat euskaraz. Lehena, lau ahotsetara ardoari eskainitakoa, *Salutífero y aromático* hitzez has-ten dena, eta sei bertsolerroko bi estrofaduna. Bigarrena *Ai, niri zer egin ote zait* (4) lehen bertsolerroan dakarrena, eta seibertolerroko sei estrofaduna, eta erabili zuena Peñaflo-ridako kondeak *El Borracho Burlado* operaren hasieran<sup>11</sup>. Hirugarrena, gaztelaniaz ber-ritz, eta *Folías y más folías* tituluko lau bertsolerroko estrofa.

Bai Mozkor engainatua, bai eta kondeak itzuli zuen *Le Marechal ferrant* “*El Mariscal en su fragua*”<sup>12</sup> operak aipatzen ditu Humboldt-ek bigarren bidaian (BB-92).

10. Justo Garate, *Cinco cartas inéditas de Guillermo de Humboldt*. Nueva Editorial, San Sebastián, 1934, 19.

11. Xabier de Munibe, *El Borracho Burlado, opera cómica en castellano y bascuence*. Gasteiz, 1764.

12. -, *El Mariscal en su fragua, opera cómica escrita en francés por monsiur Quetant, puesta en musica por Phylidor*.

PHetan aurkitzen ditugun beste kantak hauexek dira:

- 5) Andre Emili, andre gora.
- 6) Beti bihar, beti bihar.
- 7) Guazin lagun, guazin biyok.
- 8) Gure haur ume zurtza.
- 9) Oi, zer egin othe zaut niri.
- 10) Asteazkenean joanen gira.
- 11) Gaste nintzenean
- 12) Agur, Alciroin, gizon galanta.
- 13) Gizon bat ardo bage.

Eta C-n ematen digun Leloren eta Beotibarko kantekin hamabost dira bildu zizkigun euskal kantak.

Koldo Mitxelena<sup>13</sup> Andre Emili-ren kantaz mintzatua da zehazki, baina ez zuen izan aukerarik Oihenarten eskuzkribua irakurtzeko eta han garbiasko ageri da, saiatuez gero zertxobait, ez dela *saldu nind[...]* saritan, *saldu nincen saritan* baizik, eta *phiçu, dupha* eta *guençale* ordez *p'ïçu, dup'a* eta *k'ençale* ageri direla, alegia, leherkari hoskabeen ondoren apostrofea ageri dela hasperentasuna adieraziz, Oihenarten beste idazlanetan bezala.

Luze emango bailiguke kanta bakoitzaren xehetasun guztiak kontatzea hemen, hala nola Mitxelenak Leloren apokrifotasuna frogatuz "Contra Lekobide" artikulua esanguratsuan dioena errepikatzea, esan dezagun, ezagunak zitzaizkigula ia kanta denak beste bidez, batipat Charles August Friedrich Mahn-ek<sup>14</sup> Berlinen 1857an eta urte berean Francisque Michelek<sup>15</sup> Parisen plazaratu obren bitartez, hiru ezik, bi zirikatzaileak indianoaren aurka eta apezkumearen kontrakoa eta amodiozko bat; eta hamabost kanta horiek honela bana daitezkeela: Ostatukoak (5), Amodiozkoak (2), Baladak (3, bat zaharra –Beotibar–, beste bat tradizionala –Andre Emili–, eta hirugarrena apokrifoa –Lelo–, Joseba Lakarraren<sup>16</sup> terminologia erabiliz), Irri eta Ziri (2), Pilotarienak (1), Jendetasunezkoak (1) eta Seaskakoak (1).

Eta jarraiki diezaiogun bigarren bidaiari. Hona dioskuna Izaro uharteaz, han kokaturiko ixtorio batez, eta ipuinez ororkorki:

Delante de la bahía de Bermeo está una islita Izaro. En ella hubo en otro tiempo un convento de franciscanos fundado por la reina Isabel en 1500, pero que después fue trasladado, por mayor comodidad, a Bermeo.

A propósito de este convento me refirió mi muy charlatán acemilero un cuento bermeano, que se refiere a esta isla. Un fraile de la misma habría tenido una amante en Bermeo, y como la isla no está muy lejos de la orilla, pasaba a nado todas las noches. Para esta travesía nocturna le tendría

13. Koldo Mitxelena, "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", *Sobre Historia de la lengua vasca*. II. ASJU, Donostia, 1988, 713-729.

14. C.A.F. Mahn, *Denkmaeler der Baskischen Sprache...*, Berlin, 1857.

15. F. Michel, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris, 1857.

16. Joseba Lakarra et al., *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*. II. Hordago, Donostia, 1983.

de señal ella desde su ventana una antorcha. Pero una vez el diablo habría hecho aparecer la antorcha en otro sitio de la costa muy alejado, y el engañado fraile se habría ahogado.

Como la semejanza de este cuento con la historia de Hero y Leandro me llamó la atención, inquirí si habría otras narraciones semejantes, y me enteré de que muchas fábulas griegas se hallan con pocas alteraciones en narraciones vascongadas. Se me trajo la historia de Polifemo, que a causa de su voracidad se llama Gargantúa, los trabajos de Hércules y en especial la fábula de Dejanira, que se le atribuyen al *Chomin sendo*, el fuerte Domingo, la historia del vellocino de oro, que se ha transformado en una historia de pastores, etc.

Ningún pueblo lleva tan lejos quizás la pasión por los cuentos como los vascongados. Corren también una gran cantidad de ellos entre el pueblo y hasta hay diferentes clases. Una es la *de los duendes*. A éste pertenece, p. ej., uno muy conocido, *Santon bildurbagena*, Antonio sin miedo. Otra clase son los de las imposibilidades, *de los imposibles*, como p. ej., la historia de la vida del no nacido, etc. Con gran alborozo hubiera recogido noticias más exactas sobre estos cuentos populares. Solo que, como únicamente existen en boca del pueblo, sería necesario un completo desembarazo en la comprensión del vascuence y una permanencia todavía más larga para coleccionarlos de este manantial. Pero los hombres, que no pertenecen al pueblo, en parte no los conocen, en parte desdeñan el ocuparse en eso. También me aseguraron algunos que el atractivo de estas narraciones está tan íntimamente unido con el idioma, que en castellano pierden toda gracia, y en realidad sucede esto con toda poesía popular, a la que en cierto modo pertenecen también los cuentos, pues es siempre la expresión más natural y más peculiar de la fantasía nacional.

Si en la semejanza de algunas narraciones vascas con fábulas griegas se han de buscar vestigios medio desaparecidos de un antiguo origen común, es cosa que me sería permitido dudar. Esta semejanza me parece, como sin duda también a menudo la que hay entre idiomas tenidos por emparentados, más bien originarse por sí misma. El campo, sobre el que revolotea la fantasía inventora de cuentos, tiene que ser el mismo por todas partes, porque la fantasía y las pasiones humanas lo son, y porque también las localidades particulares, con que se relacionan ciertas fábulas (como p. ej., la historia de Hero y Leandro) se repiten por todas partes. La peculiaridad del carácter nacional hace solo que un pueblo se detenga más en una situación, el otro en otra, de este campo, y la multiplicidad irregular de la imaginación ensarta combinaciones posibles siempre de diferente manera. En verdad sería interesante en este respecto el recorrer de una vez con mirada escrutadora todo el dominio conocido de la fábula, e indicar aunque solo sea con perfiles muy indecisos el ciclo, que recorre en él la imaginación; pero trazar otra vez en el mismo los distritos peculiares de cada época y nación. Pues evidentemente forman p. ej., las fábulas griegas, las narraciones orientales, y las aventuras caballerescas de la Europa occidental clases propias, pero grandes, en que se pueden distinguir a su vez matices más finos. (BB, 151-153)

Aipamen osoa irakurri nahi izan dugu, ene ustez, ez duelako hitz batera soberan eta galzteko. Ipuinen etorkia, monogenesi eta poligenesi delakoaren arteko eztabaidan bigarrenaren alde jotzea, transmisio arazoa, greziar fabulekin duten antzekotasuna, sailkapenak, zikloak, xehetasunak, etabar.

Hero eta Leandoren arteko amodio ixtorioak duen amaiera trixtea denok ezagutzen duzue, alegia, nola neskak, itsasoak amarantearen gorpua bere itsas hegira ekartzen dionean, bere buruaz beste egiten duen. Bukaera hau ez digu aipatzen Humboldttek, eta tamalez ez zigun utzi testurik. Ovidio, Marot, Boscán, Schiller eta beste hainbeste poeta eta narratzaileen sakontasun eta luzera ez izan arren bere ttipitasunean eta apaltasunean benetan estimagarri genukeen beste ipuinekin batera, Azkueren bilketa baino ehun urte lehenagoakoak baitziratekeen.

Dena den, ez da behar adina aipatzen testu hau, bide zeharka Xabier Kaltzakortak<sup>17</sup> egiten duen arren Bizkaiko herri ipuinez mintzo delarik. Eta Euskaltzaindiak antolatutak

17. Xabier Kaltzakorta, "Bizkaiko herri-ipuin idatziak", *Euskera*, XXXVII-2, Bilbao, 1992, 477-497.



Herri-Literaturari buruzko azken jardunaldietan (Billabona 1989, Donostia 1992, Oiartzun 1994) gauza anitz interesgarri esan bada, garbi dago oraindik egiteko asko dagoela bideratzeko eta burutzeko Piarres Lafittek eskatzen zuen *Corpus Fabularum Vasconiae* osatuxe bat.

Eta amaitu dezagun gure ibilaldi hau Humboldtarenekin batera ekialdeko mugan aurkitzen diren xuberotarrekin eta hauen pastoralari eskaintzen dizkion hitzekin. Hauen hizkuntz berezitasunez mintzatu, eta giza maila klase guztietan zuela poesia eta musikarako jaidura azpimarratu ondoren honakoa diosku:

La Soule es el único sitio donde todavía se representan de continuo piezas de teatro vascas. Se les llama aquí Pastorales, pero no son siempre églogas, sino mucho más propiamente pretendidas acciones de estado, en que entran en escena reyes y emperadores. Hechos de Roldán desempeñan a menudo especialmente un gran papel en ellas. Los actores son jóvenes de ambos sexos, que en su mayoría no saben leer; les instruyen personas que llaman *Instituteurs des acteurs des pastorales*, pero que de ordinario son también aldeanos. El instructor es también, según genuina costumbre clásica, la mayoría de las veces el autor de la pieza. La representación se verifica a cielo abierto, en Mauleon, la cabeza del distrito, de ordinario en la plaza de paseo de la ciudad, una avenida sombreada de altos tilos, la dicción es en parte cantada, en parte recitada, la entrada es gratis, los forasteros, hacia los que los souletanos son en general muy atentos, toman los primeros puestos. Tampoco es aquí rara la versificación improvisada sobre cualquier objeto dado (BB,186).

Zuberoako pastoralez eta bapateko koblaritzaz egiten den lehenetariko aipamena dugu. Ezaguna da zein nolako atxikimenduz xuberotarrek zaintzen dituzten beren tradizioak eta bereziki pastorala, eta nola hau moldatu izan duten garai berrietara muina eta azala mantenduz. Hala, adibidez, *Seme Hondatzailea* izeneko pastorala 1770ean *Te Deum* kantarekin bukatzen bazen, 1796an *Nazioniren fabori* eta *Kaminolarekin*, alegia, *La Carmagnole* kantarekin bukatu ziren. 1799. urtean *Clovis* taularatu zuten, eta badirudi 1801ean *Roldan*. Beraz, Frantziako historian pasadizu garrantzitsuenetarikotzat jotzen zirenak. Eta jakina da, ere, nola ixtorio luze horiek zertxobait arintzeko eta libertigarriagoak egiteko astolasterrak tartekatzen zituzten. Hala Erroldan-en edo Erraldoiren pastoralaren eskuzkribuarekin batera aurkitu nuen *Recoquillart eta Arieder* astolasterra plazaratu nuen aspalditxo<sup>18</sup>. Nere pena eta kezkarik haundienetarikoa da, Zuberoako literatur altxor hori, alegia, pastoralena eta astolasterrena, Francisque Michelek 1855ean Prospero Meriméri idatzi gutun batean eskatzen ziona lehenbailehen argitara zedin, 1891ean Julien Vinson plazaratzen hasitako bilduma lehen alean amaitu izana, eta oraindik hautsak hartzen egotea liburutegietako zokoetan eskuzkribu gehienak, ez dakit zein satanek edo sorginek kateaturik.

Dena den, itxaron dezagun, esperantza galtzen omen den azkena dela eta, euskal ikerketen alorra pizten ari zaigularik, Eusko Ikaskuntzak Humboldtari eskaini jardunaldi hauek adierazten dutenez, euskal literaturak betetzeko dituen hutsune horiek duintasunez osatzen joan ditezen.

Bukatu dut. Mila esker zuen arretagatik.

18. Patri Urkizu, "Recoquillart eta Arieder", *Anuario del Seminario de Filología Julio de Urquijo*, VII, 1973, 117-225.